



HITZARMENA

Arrasateko Udala eta Goiena komunikazio taldearen artekoa Udal irratia elkarlanean antolatu eta finantzatzeko

Arrasaten, 2017/6/23an

BILDURIK

Alde batetik, Aitor Izagirre Navarro jauna, NA 72446804R duena, adinez nagusia, Goiena Komunikazio Taldearen izenean eta errepresentazioz.

Eta bestetik, Maria Ubarretxena Cid, Arrasateko Udaleko alkate-udalburua, beronen izenean eta ordeztuz diharduena, horretarako behar bezala ahalmena dagoelarik.

Bi aldeek, hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri

LEGE TESTUINGURUA

Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak herritarren hizkuntza eskubideak aitortu eta herri-aginteez hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu. Albisteak eta informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea aitortzen die herritarrei, besteak beste. Lege horren arabera, beraz, Euskal Herriko herri-aginteez –eta, zehazkiago esanda, udalek– euskara zabaldu eta zabaltzen laguntzeko obligazioa dute, bai eta komunikabideen arloan ere.

Horretaz gain, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeetarako buruzkoak, 7 artikuluan zehazten du udalei izendatzen zaiela eskumen propio gisa, izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazio planifikatzeko eskumena.

AZALPENAK

Handia eta aberatsa izan da azken urteotan Arrasaten eta Debagoienean herri eta eskualde komunikabideen alde egindako lana eta ahalegina. Horren fruitu emankor bilakatu dira herritarrengandik hain harrera ona eta beroa jaso duten Goiena papera, Goiena telebista, Goiena.net eta Arrasate Udal Irratia.

Proiektu horietan guztietan Arrasateko euskara elkarteek berebiziko garrantzia izan dute, euren ekimenez sortu baitira komunikabideok. Herri aginteez, bestalde, ezinbesteko bultzada eman diete, behar zituzten azpiegiturak, baliabideak, diru laguntzak eta babes eskainiz. Herri ekimenaren eta administrazioaren arteko elkarlanaren fruitu dira, beraz, gaur egun Goiena Komunikazio Taldeak kudeatzen dituen komunikabideok. Arrasateko Udalak garrantzi handiko deritza Goiena Komunikazio Taldeak egiten duen lan horretarako behar bezalako laguntza ematen jarraitu eta, bide batez, geroa ziurtatu eta sendotzeari ere.


Hori guztia dela eta, hitzarmen hau izenpetzen dute, ondorengo klausulen arabera:

KLAUSULAK

Lehenena. Arrasateko Udalak eta Goiena Komunikazio Taldeak Udal Irratia elkarlanean kudeatzea eta finantzatzea da hitzarmen honen helburua.

Bigarrenena. Arrasateko Udala da irratia erabiltzeko titularra eta alkate-udalburua edo, hala behar duenean, Kultura eta Euskara batzordeko burua izango da haren ordezkari, Udal Irratiaren kudeaketari dagokionez.

Hirugarrenena. Udal Irratiak euskaraz egingo ditu bere emanaldi guztiak.





Laugarrena. Arrasateko Udalak Otolara Lizentziatua kaleko 31n dituen lokaletan izango da Udal Irratiaren egoitza. Lokalak dohainik utziko dizkio Udalak Goiena Komunikazio Taldeari eta hitzarmen honen eginkizunak eskatzen duen erabileragatik egoitzan sor daitezkeen gastuak Udalaren kontura izango dira.

Bosgarrena. Goiena Komunikazio Taldeak eratuko ditu Udal Irratiaren saioak eta emanaldiak. Emanaldiak, 11/1991 legearen 2. artikuluan azaldutako printzipioetan oinarrituko dira.

Seigarrena. Udal Irratiko publizitatearen bidez jasotako dirua Udal Irratiaren sarrerak osatzeko erabiliko ditu Goienak.

Zazpigarrena. Hitzarmen honen bidez adostutako jarduera finantzatuko du Arrasateko Udalak parametro hauek kontuan izanik: pertsonal kostu zuzena eta zeharkakoa, ordezkapenak eta mantenu orokorra, bai eta inbertsioetarako partidak ere. Halaber, aurrerantzean egon daitezkeen indemnitazio edo erantzukizunetarako hornidurak. Gastu horiei Goiena Komunikazio Taldeak publizitate kontzeptuan jaso dezakeen kopurua kenduko zaio. Aurrerantzean Goiena Komunikazio Taldeak jakinaren gainean jarriko du Arrasateko Udala langileren bat kontratatu behar duen bakoitzean.

Zortzigarrena. Aurreko klausulak jarraituz egindako kalkuluen arabera, Arrasateko Udalak 30.000 €-ko diru kopurua emango dio Goiena Komunikazio Taldeari 2017 urteko jardueragatik.

Bederatzigarrena. . Koordinazio mekanismoak eratuko dituzte bi aldeek, erabakiak hartu aurretik adostasuna lortzea beharrezkoa den kasuetarako. Koordinazio mekanismo gisara bitariko batzordea eratzea adosten da, hitzarmen honen betetze eta interpretazioan sor daitezkeen arazoak ebazteko egitekoarekin. Batzorde hau osatuko dute Kultura eta Euskara sailtako zinegotzi eskuordetuak eta Goiena Komunikazio Taldeko Lehendakariak.

Hamargarrena. Hitzarmen honek finkatzen duen diru laguntza hamabi zatitan ordainduko dio Arrasateko Udalak Goiena Komunikazio Taldeari. Hitzarmen hau sinatu eta berehala ordainduko dio Arrasateko Udalak Goiena Komunikazio Taldeari urte hasieratik hona pasatu diren hilabeteen likidazioa, emandako aurrerakinak deskontaturik. Datorren urtean ere hamabi zatitan ordainduko dio Udalak Goiena Komunikazio Taldeari urteko diru laguntza; bera finkatu arte aurrerakin moduan ordainduko dio, aurtun emandakoaren arabera, baina 2017ko aurrekontuetan onartutako kopuruaren mugaraino.

Hamaikagarrena. Aurtengo jardueraren azalpen memoria aurkeztuko du Goiena Komunikazio Taldeak datorren 2018ko urtarrilaren 15a baino lehen, eta, horrekin batera, emaitzen balorazioa eta diru kontuen likidazioa. Bestalde, Udal Irratiaren datuak eta agiriak aurkeztuko ditu Goiena Komunikazio Taldeak, urteko jarduera finantzatzeko Arrasateko Udalak emandako diru laguntza zurrizteko aurkeztu behar dituen datuekin eta agiriarekin batera, dagokion enpresa eskudunak Goiena Komunikazio Taldearen finantza egoerari buruz egingo duen auditoriaren barruan.

Hamabigarrena. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eman ditzakeen diru laguntzak justifikatzeko beharrezko fakturen kopia eta ziurtagiriak ere Goiena Komunikazio Taldeak prestatuko ditu.

Hamairugarrena: Alderdiek ez badituzte dagozkien betebeharrak betetzen, hitzarmena bertan behera uzteko prozedura hasiko da. Hitzarmena bertan behera utziz gero, hitzarmena bete duen alderdia bere betebeharrak betetzetik salbu geratuko da.


Hamalagarrena: Hitzarmen honek urtebeteko iraunaldia izango du, baina automatikoki bertan behera geratuko da, 2018. urteari dagokion hitzarmena sinatzen den egunean.

Eta horrela jasota uzteko eta adostasuna adierazteko, honako hitzarmen hau egin eta hasieran aipatutako toki-egunetan izenpetzen dute bildutakoek.

Aitor Izagirre Navarro
Goiena Komunikazio Taldeko lehendakaria

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Maria Ubarretxena Cid
Arrasateko Udaleko alkate-udalburua



Alkatetza ■



HITZARMENA

Arrasateko Udala eta Goiena komunikazio taldearen artekoa Hainbat ekintza elkarlanean antolatu eta finantzatzeko

Arrasaten, 2017/6/23an

BILDURIK

Alde batetik, Aitor Izagirre Navarro jauna, NA 72446804R duena, adinez nagusia, Goiena Komunikazio Taldearen izenean eta errepresentazioz.

Eta bestetik, Maria Ubarretxena Cid, Arrasateko Udalaren alkate-udalburua, beronen izenean eta ordezkari gisa, horretarako behar bezala ahalmendua dagoelarik.

Bi aldeek hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri

LEGE TESTUINGURUA

Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak herritarren hizkuntza eskubideak aitortu eta herri-agintek hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu. Albisteak eta informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea aitortzen die herritarrei, besteak beste. Lege horren arabera, beraz, Euskal Herriko herri-agintek –eta, zehazkiago esanda, udalek– euskara zabaldu eta zabaltzen laguntzeko obligazioa dute, bai eta komunikabideen arloan ere.

Horretaz gain, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 7 artikuluan zehazten du udalei izendatzen zaiela eskumen propio gisa, izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazio planifikatzeko eskumena.

AZALPENAK


Handia eta aberatsa izan da azken urteotan Arrasaten eta Debagoienean herri eta eskualde komunikabideen alde egindako lana eta ahalegina. Horren fruitu emankor bilakatu dira herritarrengandik hain harrera ona eta beroa jaso duten Goienkaria eta Goiena Telebista, besteak beste.

Proiektu horietan guztietan Arrasateko euskara elkarteek berebiziko garrantzia izan dute, euren elkarlanean sortu baitira komunikabideok. Herri agintek, bestalde, ezinbesteko bultzada eman diete, behar dituzten azpiegiturak, baliabideak, diru laguntzak eta babesak eskainiz. Herri ekimenaren eta administrazioaren arteko elkarlanaren fruitu dira, beraz, gaur egun Goienak kudeatzen dituen komunikabideok. Arrasateko Udalak garrantzi handiko deritza Goiena Komunikazio Taldeak egiten duen lan eskergari behar bezalako laguntza ematen jarraitu eta, bide batez, geroa ziurtatu eta sendotzeko ere.

Hori guztia dela eta, hitzarmen hau izenpetzen dute, ondorengo klausulen arabera:

KLAUSULAK

Lehen. Goiena Komunikazio Taldea eta Arrasateko Udalak elkarlanean eta Goiena Komunikazio Taldearen ardurapean, 2017 urtean burutuko dituzten jardueretarako diru laguntzak xedatzea da hitzarmen honen helburua.





Bigarrena. Hitzarmen honen bidez Goiena papera eta Goiena telebistaren jarduerak 165.703 €-ekin lagunduko ditu Arrasateko Udalak (Goiena paperean argitaratu eta banatu ahal izateko, eta Goiena telebista emititu eta Arrasaten ikusi ahal izateko). Hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera burutuko ditu Goiena Komunikazio Taldeak jarduera horiek.

Hirugarrena. Otorala lizentziatua 31n Goiena Komunikazio Taldeak erabiltzen dituen udal lokalak direla eta, urtean adostuko dute bi erakundeok zer zerbitzu emango dion Goiena Komunikazio Taldeak Arrasateko Udalari.

Laugarrena. Koordinazio mekanismoak eratuko dituzte bi aldeek, erabakiak hartu aurretik adostasuna lortzea beharrezkoa den kasuetarako. Koordinazio mekanismo gisara bitariko batzordea eratzea adosten da, hitzarmen honen betetze eta interpretazioan sor daitezkeen arazoak ebazteko egitekoarekin. Batzorde hau osatuko dute Kultura eta Euskara sailetako zinegotzi eskuordetuak eta Goiena Komunikazio Taldeko Lehendakariak.

Bosgarrena. Arrasateko Udala babesle moduan agertuko da, bai Goiena paperean bai Goiena telebistan bai eta ekintza horien kartel iragarleetan ere.

Seigarrena. Hitzarmen honek finkatzen duen diru laguntza hamabi zatitan ordainduko dio Arrasateko Udalak Goiena Komunikazio Taldeari. Hitzarmen hau sinatu eta berehala ordainduko dio Arrasateko Udalak Goiena Komunikazio Taldeari urte hasieratik hona pasatu diren hilabeteen likidazioa, emandako aurrerakinak deskontaturik. Datorren urtean ere hamabi zatitan ordainduko dio Udalak Goiena Komunikazio Taldeari urteko diru laguntza; bera finkatu arte aurrerakin moduan ordainduko dio, aurrean emandakoaren arabera, baina 2017ko aurrekontuetan onartutako kopuruaren mugaraino.

Zazpigarrena. Aurtengo ekintzen azalpen memoria aurkeztuko du Goiena Komunikazio Taldeak datorren 2018ko urtarrilaren 15a baino lehen, diru laguntza xede duten ekintzena eta elkarteak egindako ekintza guztien; eta, horrekin batera, lortu dituen emaitzen balorazioa. Era berean, elkartearen finantza egoerak (egoeraren balantzea eta galera eta irabazien kontua) aurkeztuko ditu Goienak 2018ko maiatzaren 31 baino lehen, enpresa eskudunak auditaturik, dagokion erregistro ofizialean behar bezala izena emanda. Aipatutako finantza egoera ikuskatuak aurkezteaz gain, lagundutako programei dagokien deskargu ekonomikoa aurkeztu behar da, benetan sortu diren gastuak eta diru sarrerak adierazita, eta baita horiek egozteko erabili diren irizpideak ere.

Bederatzigarrena: Alderdiak ez badituzte dagokien betebeharrak betetzen, hitzarmena bertan behera uzteko prozedura hasiko da. Hitzarmena bertan behera utziz gero, hitzarmena bete duen alderdia bere betebeharrak betetzetik salbu geratuko da.

Hamargarrena: Hitzarmen honek urtebeteko iraunaldia izango du, baina automatikoki bertan behera geratuko da, 2018. urteari dagokion hitzarmena sinatzen den egunean.

Eta horrela jasota uzteko eta adostasuna adierazteko, honako hitzarmen hau egin eta hasieran aipatutako toki-egunetan izenpetzen dute bildutakoek.

Aitor Izagirre Navarro
Goiena Komunikazio Taldeko lehendakaria


goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

María Ubarretxena Cid
Arrasateko Udaleko alkate-udalburua

